

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BALMASEDAKO UDALAREN 2019-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean, HKEE) joan den apirilaren 7an aho batez onartu zuen Balmasedako Udalaren ekonomiaren eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldiari buruzkoa.

2019ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontabilitateko doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 306 mila euroan murriztuko litzateke. Gainera, Epaitegiak ezin zehaztu izan du Balantzeko ibilgetu- eta amortizazio-saldoek egiazko egoera islatzen dutenetz.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Gainera, HKEEk azpimarratu du 2020an sarrerek behera egin dutela, bai diru-bilketatik datozenek, bai itunpeko zergetan partaidetzatik eratorritakoek ere, COVID-19 pandemiaren eraginez.

Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren Likidazioan bete egin da aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren helburua.**

Udalak zuzentasunez **bete du** 2019an ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen **lege-araudia**, baina unean uneko akatsak atzeman dira Administrazioako kontratazioan (kontratu baten aldaketa onartu gabeak, eta etxeko laguntza-zerbitzuari dagozkion gastuak gauzatzea, kontratu-estaldurarik gabe, kudeaketa Enkarterriko Udalen Mankomunitateari eskualdatu aurreko aldian). Gainera, HKEEk ezin zehaztu izan du dirulaguntza bat behar bezala justifikatua dagoen.